

DRESS LOOP


## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

### Nola helaraziko ditugu gure produktuak?

#### KOMUNIKAZIO-KANALA:

Produktuak, webgune berri baten bidez erakutsiko ditugu, eta produktuan klikatzean, alokatzeko hautabidea edukiko du erosleak.

Webgunearen barruan, aukera desberdinak aurkitu ditzake bezeroak: enpresarekin jarraian komunikatzeko mail helbidea, telefono zenbakia, erreklamazio atala, katalogoa eta enpresaren legeak.



#### BANAKETA-KANALA:



Produktuak bezeroengana iristeko, bi aukera eskeintzen ditugu:

- Produktuak etxeetara jarraian iristeko, *DHL* garraio-enpresarekin akordio bat egin ondoren, ahalik eta azkarren garraiatuko dituzte etxeetara.
- Bezeroak, denda-fisikotik gertu bizi badira, online erosi arren, saletxera gerturatu ahalko dira produktua jasotzera.

## SALMENTA-KANALA:

Katalogoko produktuak, fisikoki nahiz digitalki aloka ditzakete bezeroek.

- Fisikoki: betiko metodoa, bezeroa dendara dator pertsonalki, ditugun produktuak begiratuko ditu gehien gustatzen zaiona aukeratzeko eta aukeratutakoan mostradorera joango da produktua alokatuko duen denbora adostera eta ordaintzera; ordaindu ondoren bezeroak momentuan eraman dezake alokatutako produktua.



- Digitalki: enpresaren webgunearen bidez alokatzea. Bezeroa webgunean sartuko da, katalogoan begiratuko du gehien gustatzen zaion produktua aurkitu arte; aukeratutakoan, produktuan klikatu eta alokatze-atalera bideratuko zaio. Atal honetan, produktua alokatu nahi duen denbora adostu ondoren, bezeroaren datuak eskatuko dira (ordainketa-metodoa eta helbidea, digitalki ordaintzeko eta produktua etxera bidaltzeko). Produktu bakarra alokatuta garraio-kostuak ordaindu beharko ditu bezeroak, baina gehiago alokatuz gero, izapidea dohainekoa izango da. Produktua 3-5 eguneko epean helduko da bezeroaren etxera.